

Bereziki mundu kooperatibokoak diren pertsoneri eskatu dakizkiekeen **jatortasun, koherentzia, austeritate eta zintzotasuna** bilatzeko kezka bizia jasotzen duten gogoeta batzuekin hasiko gara.

**"Eragin eta ez irabazi,
sortu eta ez eduki,
aurrera egin eta ez menperatu"**
(p147)

BESTE PENTSAMENDU BATZUK

"Guri beldur handiagoa eragiten digu, etorkizun kooperatiborako, kooperatibistek koiuntura bakoitzean kontsumora bideratzen dutena zuhurra litzatekeena baino gehiago izatea. Inguratzen gaituen mundu kapitalista lasai geratuko da kooperatibistok pribilegiatuen bizimodua egiten dugun egunean, zeren eta hori hala bada, gure inbertsio tasen murrizketa edo gure enpresen ahultasunak adieraziko baitute hedatzeko eta borrokatzeko daukagun indarra murriztu egin dela, eta, aldi berean, gure elkartasunak langile munduarekin izandako lotura ere hautsi egin dela" (p509)

"Erosotasuna, nabarmenkeria, luxua eta irioatea garapenaren emaitza dira, garapena giza-aurrerabiderako eta ongizaterako bitarteko eta abiapuntutzat hartu beharrean helburutzat hartzen denean" (p512)

"Ezinbestekoa da aurreztean oinarritutako austeritatea, aintzat hartzeko moduko garapen harmonikoa lortu ahal izateko" (p516)

"Ez gaitezen harro-harro ibili esanaz herri heldua eta aurrerakoia garela, bakoitza bere aldetik zentzuz eta indarrez jardun gabe. Noizbait pozik eta harro sentiarazi gaituzten gauzetatik, zenbat hartu ditugu benetan serio arduratzat" (p109)

"Kristauei aurpegiratzen zaigu, eta ez arrazoirik gabe, doktrina bat dugula eta beste bat praktikatzen dugula" (p162)

"Indarrik gabe edo zaharkituta gelditu den burgesia baten zenbat ohitura ari gara berriro bizitzen pentsatuta aurrerakoiak garela eta horregatik harro egonda, benetan kontserbadore eta tradizionalistak txarrenak izanik?" (p233)

"Elkartasuna eta zintzotasuna berez dira errentagarriak" (p348)

"Gizakiarekin lotutako ezer ere ez zait arrotza, esan zuen kristautasun aurreko filosofoak. Gizaki duin batek lotsa sentitu behar du gaizki elikatutako 2.000 milioi gizakiko mundu batean aberatsa izateaz eta aberats gisa bizitzeaz" (p344)

"A zelako droga dugun dirua, zeren dirua lortzeko estudiatu, lan egin eta denetarik asmatzen baitu norberak, giza duintasuna, lanerako eskubidea, justizia sozialaren eskakizunak eta halako gauza errespetagarriak ahotan hartuta; baina, a zelako samur ahazten diren gauza horiek behin dirua eskuratu eta erabili, prostituitu eta edozein zirtzileriaren nahiz apetaren truke aldatzeko, orduan nahikoa izaten baitugu, geure burua babesteko, «nirearekin nahi dudana egiten dut» esatearekin" (p513)

"Balio gehiegi goraiatu dugu dagoeneko: mugarik gabeko lanaren efikazia, errentagarritasuna, garapena, hazkundera... baina ordua da beste balio batzuekin ordezkatu ditzagun, eta lehentasuna eman diezaiozun adiskidetasunari, elkarbizitzari, komunikazioari. Besteengan zerbait ikustea, balio suntsikor horien guztien ginetik dagoen zerbait. Finean, adierazpen eta programa handirik egin gabe, bizitzan xume ibiltzea erresistentziak gainditzeko, besteak alaitasun eta gogobetetze iturritzat hartuta".(Jesus Larrañagarekin elkarrizketatik jasoa)

"Lehenengo gizakiak eta, ondoren, kooperatibak" (p023)